

Tubi txapeldun eta Loiola bigarren Lasto Jasotze Txapelketan

10. orrialdea

Igorreko Ziklo-krosa abenduaren 8an

Goizeko 10:00etan hasiko dira Kadeteak, neska eta mutilak; 10:45ean, Gazteak (gizonak) eta 11:30ean, Kadete eta Gazteen sari banaketara egingo da. Andrazkoen txandea 12:00etan izango da, Gazteak, Sub23 eta Elite. Gizonak ostera, 13:00etan lehiatuko dira, Elite eta Sub23 kategoriakoak. Egitaraua 14:00etako sari banaketeagaz amaituko da. **10. orrialdea**



Abendu osoan zehar hainbat kultur ekintza egingo dira Zeberion

12. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

329

2019ko abenduaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Euskerearen Eguna ospatzeko hainbat ekintza

Abenduaren 3a Euskerearen Nazinoarteko Eguna da eta horren harira hainbat ekintza prestatu ditue gure eskualdean erabilera handitzeko.

Helburua, datorren urteko Euskaraldiaren berbera da: euskeraz gehiago egitea, jente gehiagogaz, eta gehiagotan. Eta konpromiso hori kolektiboa izan behar denez, taldeetako hizkuntza ohituretan euskera sartu edo indartzeko hainbat ekitaldi prestatu ditue. Tartean, datorren urteko Euskaraldia aurkeztu eta prestatzen antolatzekeo berbaldiak. Areatzan, Bedian, Diman eta Igorren, berbarako, aurkeztu eta prestatzen hasiko dira. Horrez gainera, ikuskizunak,

bideo emonaldiak, irakurketa jarraitua, solasaldiak... euskeraz gehiago, jente gehiagogaz eta gehiagotan egin ahal izateko.

Egunean bertan bakarrik ez dira izango jarduerok, Lemoan eta Zezurin, zementariaren 29 eta 30ean, hurrengo hurrengo, hasi ziran eta. Abenduaren 3tik gerora be luzatuko dira programazioak; izan be, abenduan zehar izango dira Euskaraldia 2020ren aurkezpenak edo eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna. **8. eta 9. orrialdeak**



EUSKARALDIA
355
EGUN

ARRATIA

Metalgintzak hitzarmenerako aurrekordia lortu dau Bizkaian

Zemendiaren 26an, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak, FVEM patronalagaz akordioa lortu eben Bizkaiko Metalgintzako Hitzarmenerako. LABen ustez aurrekordio historikoa da eta CCOOen arabera, amaiera emoten deutso metalaren Bizkaiko gatazkeari. ELAk ez dau sinatu, gauza batzuk hobetu behar dirala eretxi deutso eta denporea behar dauala patronalaren proposamena aztertuteko adierazo dau. **7. orrialdea**

AREATZA

Gabonetako erosketak herrian egiteko Bonodenda kanpaina abian

Urtailaren 4ra arte, 20 eurotan bonoak erosteko aukerea egongo da udaletxean, eta 25 eurogaitik trukatu ahal izango dira herriko komertzioetan. Bonodendaren bigarren edizino honetan 400 bono ateratzen dira eta Udalak 2.000 euro ipiniko ditu herriko komertzioa bultzatzea helburu daukan kanpaina honetan. Oingo kanpaina, bonoak erosi eta segiduan gastatu daitezke. **5. orrialdea**

ARRATIA

Makatzak talde ekologistea sortu dabe

Arratiako ingurumen arazoez arduratuta, herritar talde bat alkarte ekologista bat eratzen hasi da. Arratiatik pasauko dan autopista elektrikoa, aire kalidadea, basoen kudeaketea, erreken egoera, plastikoen presentzia masiboa, animalien ondoizatea eta eredu energetikoa dira, beste batzuen artean, Arratiatik dituan ingurumen arazoak. Horreetan eragiteko eta bizi kalidadea hobetuteko sortu da taldea.

Egitasmoa ezetuten emoteko taldeak ekintza bi antolatu ditu momentuz. Hilaren 11n, *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala botako dabe Igorreko Lasarte Aretoan eta urtailaren 23an Gurasos plataformakoak erraustegien gaineko berbaldia egingo dabe Lemoan. **5. orrialdea**

Orain zure entzumenaren osasun azterketa Olaetxe Optika Zentruan

2 audifono Adimen Artifizialarekin + Arreta Plana

GUZTIA BARNE DUEN PLANA DAUKAGU: Eta gozatu adimen artifiziala duten munduko audifono bakarrak 15 egunez probatu, konpromisorik gabe

Audifono adimentsuak WIDEX EVOKE

Pilak dohainik

Bizitza osoan bisitak doan

Apurketa, galera edo lapurreta aseguruak

Olaetxe OPTIKA ZENTRUA

Sabino Arana Kalea, 3 Igorre T. 946 577 003

CENTRO AUDITIVO OFICIAL WIDEX

Literatura txokoa

BASA

Miren Amuriza Plaza, nork ez dau ezetuten? Bertsolaria, galdetzea be! Baina oingo honetan helduentzat dan istorio batezaz ja-torku. Igartza bekeari esker idatzi dauana eta guri guztiori leiduntok aukerea emon deuskuna.

Sabina Gogenola, urteetan au-rerra joanda dagoan Altzerreka baserriko uzabandrea alarguna da; bere zaintzapean dagoz Hen-ry (bertako semea, urte luzez Ameriketara artzain ibilia, baina aspalditik oheratuta bizi dana hankea anputau eta gero) eta etxaldea. Urteak gogortu dabe Sabina, bere baserria da bere mundua, behiakaz, ardiakaz, etxeko txakurrakaz edo katuakaz ederto baten konponduten da uzabandrea, eurakaz daukaz

berba gozoak, maitasunezko keinuak... Etxekoakaz dana da errezeloa, ika-mika eta tensinoo; auzokoakaz, dana erretolikea eta norgehiagokea.

Dana aldrebestuko da Sabina egingo deusien ebakuntza txiki batezaz, zaintzailea izetetik zaindua izatera pasetan danean biztuko da gatazka.

Zaintza gatazka modura erakutsiko deusku, Sabinak berzetat daukan egitea, poderea, seme-alabengandik datorrenean kontroltzat biziko dauana. Seme-alabak egunerokoa erraztu gura deusien arren, berak ez dau ezer jakin gura modernidadeagaz, erosotasunagaz, inork ez deutso esango zelan bizi behar dan... Gatazka honek aurrekusi

ezin dan ondorio larria izango dau.

Amurizak bere eleberri honetan biziteko era bat akabetan dabilen mundu ikuskera bat erakusten dau, erretratu gordin eta fidel batezaz. Arin baten leituden dan eleberria da, era zehatzean eta indartsuan idatzita dagoanez gure inguruan bizi edota bizi izan diran andrak etorriko jakuz burura, personen arteko harremantzeak daukien zailtasunen aurrean ipiniko gaitu. Leituden segiduteko gogoagaz itxiko gaitu, hurrengo eleberriaren zain.

Baserria, basa-andrea, biziteko era basa... Paperezko txoriak izan behar eban istorioa gure gozamererako *Basa* bihurtu zan.

Karmele Beobide Urigoitia

Miren Amuriza Plaza

Basa

Elkar argitaletxea, 2019

128 orrialde



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abenduaren 2tik 8ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara

Goiri Montoya. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 9tik 15era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 16tik 22ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gomezeta Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areata: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areata: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Goibealde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Goibealde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatazako Notarioria

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefona: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Inigo Iruarizaga.

Erredakzio burua: Beatriz Azpiri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzio taldea: Irati Urien.

Maketazioa: Beatriz Azpiri eta Inigo Iruarizaga.

Publizitatea: Inigo Iruarizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketa: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areata), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tirada: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Dimako puntu lila, non zagoz?

Bazan behin Dimako udaletxeko bakoian bizi zan puntu lila bat; harro-harro egoan bertatik, balkoi horretatik, Dimako herrian eta dimoztar guztien andra eta gizonen arteko bardintasan eza oinari daben indarkerien kontrako konpromiso aktiboa erakusteko aukerea ebalako.

Baina... heldu ziran udal hauteskundeak, gobernu talde barria sartu zan Udalean eta lehenengo egunetik gure puntu lila maitea desagertu zan.

Bila eta bila ibili gara ordutik hona (gutunak, bilerak, aurrez aurreko alkarizketak...) eta, balkoi hori ez zala herriaren nahiaren erakusle-hoa entzun ostean, burrukan segidu genduan helburu zehatz batez: zemendiaren 25erako (arinago ez bazan) gure puntu lila bere lekura bueltatea, bertan geldituteko!

Lortuko genduala emoten eban, baina... ezuste galanta hartu dogu udaletxeko ohar taulan, harreran eta webgunean bakarrik ipiniko dala jakitean, dimoztarren andren kontrako indarkeriaren kontrako jarkerea ostonduta euki beharko bagendu lez.

Bitartean, oindino bete ez dabean ekintzaz betetako adierazpen instituzionala egin dabe, EAJ eta Dima Aukeratu udal taldeak sartutako mozino alternatibo bat gehien-

go osoz onartu ebelarik, Andraizeak idatzitakoaren kontra bozkatu. Gu-gaz eta Mankomunidadeagaz ez-lango koordinaziorik ez da egon oin arte; eta oindino larriagoa dana: gai honen inguruan berba egiteko eurak be ez dira oindino ezarri! Ez ete da gai garrantzitsua udaletxean daroen sei hilabeteetan tartetxo bat be ez aterateko?

Gure lana erraztutea baino oztopatuten dabiz, zemendiaren 25eko egitarauan programautako ekintza bat (hainbat herritan egin dan moduan bankuak morez pintetea, hain zuzen be) bertan behera itxi behar izan dogu Udalak baimenik ez deuskulako emon! Errazoa: "...eguna ospatuteko, (bai, bai, ospatuteko!)... Udalak ez dau onartu eskaera hori modu egokiagoak egon ahal diralako ospakizun (barriro! ospatu beharreko zeozer egongo balitz moduan) hori burututeko, udal altzariak kaltetu barik".

Ipuin baten moduan hasi da idazki hau baina, zoritxarrez, andren kontrako indarkeria ez da asmatutako bildurrezko istorio bat (benetan bildurra eta nazka emoten badau be!), segundoro, minuturo, orduro, egunero, astero, hilero, urtero androk erasotuten gaitue! bortxatuten gaitue! hiltzen gaitue! Eta gure puntu lilak horretaz nazkatuta gagozala erakutsi gura deutso munduari, bildur barik, lotsa barik, lau haizetara... udaletxeko balkoitik!

Hala bazan edo ez bazan... puntu lila gura dogu Dimako udaletxeko bakoian!

ANDRAIZEA DIMEKO ANDREN ELKARTEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Arrakada



Belarrietatik zintzilik jartzen dan apaingariari arrakada esaten jako gure artean (arrakadéa, ahoskatuta). Batuan, belarritako da. Gaztelania zaharretik hartutako mailegua da. Kultura zaharretatik datorren kuttun mota bat da. Esate baterako: "Arrakada politak erosi dodaz amari erregeletako". Arratia inguruan, zirgilo eta zirtzilo berbak be erabilten dira arrakada esateko; azken hau be gaztelania zaharreko "zarzillo"tik dator.

ERETXIA

Euskerearen Eguna (barriro)

Euskalzale eta euskera irakaslea naz. Semeetako bat abenduaren 3koa dot eta ez da kasualidadea. Egun horretan ospitalean umedun nengoala nire ardura nagusia umea gaueko 12ak jo orduko jaiotea zan Euskerearen Egunekoa izatea gura nebalako. Medikuai halantxi eskatu (droga dosia igon eustan) eta ordu erdi eskasegaitik lortu neban.

Aimarreri sarri azaldu deusagu zergaitik ospatzen dan Euskerearen Eguna bere egunez, Xabierreko Frantzisko egunean hain zuzen be. Kondaireak dino, Xabierreko Frantzisko nafar misinolaria hil zanean Txinan, bere azken berbak bere ama hizkuntzan, euskeraz, esan ebazala. 1949an aldarrikatu eban Eusko Ikaskuntzak Euskerearen Nazinoarteko Egun lez euskerearen unibersaltasuna adierazoteko. Geroztik urtero egin da egunaren ospakizuna.

Euskalduna dogu gure bailara. Bertako herri asko UEMA kide doguz. Arantzazu izan zan 2018an pausua emoten azkena. UEMAKO udallerrietan, biztanleen %70ek baino gehiagok daki euskeraz. Euskera hutsean funtzionau daitekela frogatu dabe bertako udalak. Euskera planak garatu, proiektu desbardinak martxan ipini, hizkuntza erabilera sustatuteko estrategiak... Bidean goaz baina badaukagu nondik ibili.

Hainbat dira Arratian euskerearen alde esparru desbardinetan beharrean ibili dabizanak. Auzolanean. Ilusinoz. Euskereak beharrezko dituan militanteak, seme-alabak euskeraz ikasi dagien gura daben gurasoak, AEKko ikasle eta irakasleak... Zenbat ahalegin, zenbat behar personal zein kolektibo! Horreei zor deusagu ba gaur egungo euskerearen errealidadea. Bazter guztietara hizkuntza zabalduete ahalegina egin dozuen guztiok arnas barrituteko eguna da abenduaren 3a; etxean eta kalean, eskola zein lantegian,



RAKEL IRUARRIZAGA
Irakaslea

taberna edo administrazioan, mobikorrean edo Twitterren euskeraz bizi geintezkala sinistuten dogulako. Segidu lanean ba!

Euskal Herriko datuek ezagutza handituz doala dinoe, ingurura begiratuaz, batzuetan dudak sortuten jataz. Hezkuntzan lan egiten dogunok badakigu euskerearen erabilera gaur gaurkoz arazo dogula. Gure ikasle artean ez dago "modan" euskeraz berba egitea. Aldaketa sakona emon beharko da hizkuntza ohituretan eta oindino formula magikoa zein dan inok ez dau asmatu. Gehien-go euskerearen alde agertuko da baina euskerearen alde egotetik alde egiterako pausua geratuten jaku. Euskerea bihotzean barik ezpainetan eroatekoa. Abenduaren 3a ez daitela izan antxinako erlikia edo galdutako altxorra nostalgiaz gogoratuko dogun eguna, gure hizkuntza egunero erabilteko konpromisoa berresten dogun eguna baino.

Egun honetan indar barriz sendotuten dogu danon egina-hala, hauspoa legez ilusinoz bete etorkizuna euskalzaletasunean bustita. Hori behar dau euskerak, horixe berori, baina ez egun bakarrean, urte osoan baino. Beste egun batzuk be etorriko dirala ziurtatutea da gure zeregina. Abenduaren 3a hurreratu ahala, euskaldun izatearen "harrotasuna" handituz joaku; txapak eta pankartak egin, herrietako ekitaldi berezietan parte hartu, eskoletan jaialdiak... euskerearen globoa ia-ia esplotau arazo arte putzitzen dogu. Erronkarik handiena abenduaren 4ean globoaren ahotik atzamarra kendu eta hustu beharrean moronpilagaz ondo lotutea dogu.

Tantakada batek ez dau itsasorik egingo, eta euskal hiztun bakar batek gatx dauka inguruko hizkuntza ohiturak aldatuteko, inguruko babesik barik. Aldaketa soziala izan behar da, bai, baina baita be politikoa. Horretan administrazioak eta herrietako erakunde guztiak daukie zeresana eta zeregina. Baina ez daigun esparru pribaduen edo erakunde publikoetan ipini fokoa, ez daigun euren esku dana itxi, pailazo ez diranak be pailazokeriak egiten dabezala erakutsi deuskue-eta. Badogu jamon behar dogun eta jamon ahal dogun arloa: norbere ingurua, euskal hiztun bakotzak bere inguruan euki ahal dauan eragina. Normalizazio prozesua lau zutabedun metafora batez konparau izan da: herriaren gogo eta borondatea, corpus juridikoa, plangintza eta baliabide egokiak. Gogo eta borondatearena ez daitela izan huts egiten dauan zutabea!

Euskaraldiak asteon egin barri dauan aurkezpenean lema sano argia aurkeztu dau eta gure egoera ederto deskribiduteko balio deusku: gehiago, gehiagotan eta gehiagogaz. Gehiengo soziala aktibetea lortu gura bado gu alkarren artean egin beharko dogu: euskaldun garanok, euskaldun izateko bidean dagozanak eta erdaldunak. Euskereak danok behar gaitu.

MILA, MILA ESKER
ZUORI ESKER 28 URTETAN
EGON NAZ GALANTAN!!
BEZERO ITZELAK,
LAGUN MINAK..
BETI EGONGO ZARIE
NIRE BIHOTZEAN!

M. Jose zure arropa GALANTA

LUMATUTEN



IZASKUN ATUTXA

Il pleuvait des oiseaux

Il pleuvait des oiseaux (Txori euria) Louise Archambault zuzendari kanadarraren filmaren izenburua da eta Donostia Zinemaldian emon eben. Askatasunaren, maitasunaren eta naturearen aldeko aldarrikapena da film poetiko hau. Trama Kanadako basoan emoten da, hainbat ermitau bertara biziten doaz eta larogei urteak beteta dituan atso bategaz gurutzatzen dira. Atsoa ingurune horretan agertu da, bizitza osoa egoera bidebakoan psikiatriko baten emon ostean.

Film honetako personajeak naturan bizitea aukeratu dabe, oso aukera atipikoa, eta artearen, pinturarearen eta musikearen bidez adierazoko dabez euren emozinoak.

Natureagaz eta kultureagaz hartu-emonetan egoteak osasunari ekarten deusazan onurakaz lotutako albisteak ekarten deustaz gogora. Japonian

basoko bainuak errezetatzin ditue konsultetan, eta OMEK hainbat jarduera kulturek osasunean dituen onurak nabarmendu ditu; irakurketak, antzerkiak, musikeak edo museoak, barbarako.

Egia esan, arrazoimenaren menpe dagoan mundu baten aurrean, artea da, bere adierazpide guztietan -liburu bat, film bat kasu-, bizirik gagozala sentidu arazoten deuskuen sentimentuak eta emozinoak bizten dituana. Azken baten, arteak ezkutuan dagoana argitara ateraten dau, entzuten erakusten deusku, errealidadea beste ikuspuntu batzuetatik hautematen, aldatzera konbidatzen gaitu, eraldatzera, baita gure egia aldatzera be.

Eta baso errearen gaineko txori baltzen eurira itzuliz..., ermitaue-tako batek margotutako koadroan marraztuta dagoana, Kanadako mendiak erraustu ebezen suteetan familia osoa hil zaneko tragediaren sinbolizetan dau.

Ez jaku gustetan heriotzeaz berba egitea. Dana dala, denpora gehien hartuko deuskuna da. Gaur egun, heriotzearen gainean berba egiteko *death coffe* alkarguneak antolatzen hasiak dira.

Khalil Gibanek poema eder honen bidez deskribiduten dau:

"Diotenez, itsasoan sartu aurretik, ibaiak beldurrez jartzen da...

Ibaia ezin da itzuli... Bertan sartzean baino ez da beldurra desagertuko, une horretan bertan jakingo du kontua ez dela bertan desagertzea, ozeano bihurtzea baizik".

ZERTZEAN



MARIA ATUTXA

1

Udazken bihurtuta lehen uda zirenak, atzo berde-berdeak ziren hosto denak guztiz tintatu ditu gorritz udazkenak zuhaitzetan zintzilik dagozan azkenak.

2

Hostoak jausi eta nik behin zapalduta udazken usain hori jadanik ahiztuta neguko laberintu luzean galduta gaztainak ditut orain buruan sartuta.

3

Etxeak txokolate bero usaina du sutondoan jarrita egoten gara gu holan pasatu dira hiru hile negu eta laster elurrak hartu behar du su.

4

Gailur zuriak orain berdera itzuliz zeru osoa bete da eguzki izpiz zuhaitz biluzi danak jantzi dira barriz txoriak bueltan datoz eguzki egarriz.

5

Txorien kantuekatz itxartu ei gara, txioka ibiltzen dira hona eta hara larreetan hainbeste loratxo ilara hau da udabarria, benetan, magia da.

6

Momentu hau etxoten denbora askoan eguzkia erretzen dabil oraingoan garagardo botila, krema be ondoan herenegungo juerga oraindik gogoa.

BEGI TXINDORRA

Kantxa, frontis, errebote, txapa ta ezker pareta; luma, gazte ta nagusi, primi, partidu ta festa. Atea beti zabalik sartu mutil, sartu neska, frontoia bizi-bizi dau bizirik Txumuluxueta. Inoiz baino pozago gauz mende laurdena beteta, zaindu daigun frontoia gure etxea da eta, onean eta txarrean, negarrez zein barrezka, zorionsuak baikara pilota bati kolpeka.

Dimako frontoia 25 urte bete dauz. 1994/11/30 - 2019/11/30

Txumuluxueta Pelota Kluba



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odonatologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentzuak 101
R.P.S. 31/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Eztoitz
Larategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

ARRATIA

Hainbat ekintza Arratiako Jabekuntza Eskolak antolatuta

IBILBIDE EROSOAK
AHALDUNTZEA MENDIAN
EMPODERAMIENTO A TRAVÉS DE LA MONTAÑA

ILGORAN
arratiako jabekuntza eskola

NEGUKO IRTEERAK
SALIDAS INVERNALES

Azaroak 24 Noviembre
Otxandioko pagadiak

Abenduak 20,21,22 Diciembre
PIRINEOETARA IRTEERA BEREZIA*
* IZEN EMATEKO AZKIN EGUNA ABENDUAK 5
ULTIMO DIA DE INSCRIPCIÓN 5 DE DICIEMBRE
* garratxo/jana/lea ondoan behar da
deberá pagarse el transporte/la comida/ la estancia

Urtarrilak 19 Enero
Ilunbe

Otsailak 9 Febrero
Oro

ORDUTEGIA / HORARIO
9:30-14:30

TOPALEKUA / PUNTO DE ENCUENTRO
IGORRE

PREZIOA / PRECIO:
DOHAKOA / GRATUITO

libra emetle // inscripción

IBILBIDEROAK@GMAIL.COM
659265988 (whatsapp)

Erredakzioa

Arratiako Jabekuntza Eskolak *Kultur aniztasuna eta generoa gurutzatzen direnean* titulupeko interkulturalidadeari buruzko berbaldi-tailerra antolatu dau hilaren 13 eta 14rako Arteako Kultur Etxean. Barikuan 18:00etatik 21:00etara eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara egingo dabe gogoetea bertaratutakoak, Amelia Barquin, Mondragon Unibertsitateko irakaslearen zuzendaritzapean. "Kultur aniztasuna beti egon da presente gizartean, baina atzenengo hamarkada bietan nabarmen areagotu da. Egoera batzuk gogoeta egiteko eta oin artekoa birpentsetako aukera parebakoa emoten dabe. Aldi berean zalantzak eta gatazkak sortzean dira" azaldu dabe Jabekuntza Eskolatik. Ikastaroan egoera konpleju batzuen inguruan egingo dabe gogoetea "eta modu inklusiboan jokaturako erispideak bilatuko doguz" azpimarratu dabe.

Ibilbide erosoak

Ibilbide erosoak, Ilgoran Jabekuntza Eskolaren barruan sartutako proiektua da. Mendia gustuko eta kirolariak ez diran andrazkoak zuzenduta dago. Hilean behin talde bat batu eta Arratiako zein inguruetako txokoak ezetuz andron ahalduntzea eta mendira joateko

grina bizteko helburuagaz egiten dira ekintzak. Momentuz neguko urtekerak emon dira jakitera, erraketetan ibilteko Pirinioetara urtekerea, abenduak 20, 21 eta 22an izango dana; Ilunbe, urtailaren 19an, eta Oro, zezeilaren 9an dira ezetuko dabezan lekuak. Zemendiaren 24an egin zan lehen urtekerea Otxandioko pagadietara.

Izen emotea urtekera bakotxa egin baino 3 egun lehenago itxiko da eta izena ibilbiderosoak@gmail.com helbidean edo 659 265 988 telefonora mezua bialduta emon behar da.

Kartel feministak diseinatzen tailerra

Kartel feministak diseinetako tailerra zemendirako aurreikusita baegoan be, atzenean abenduan egingo da Lemoako Kulturgunean Torontileren eskutik. Ikastaroa talde feministetako kideai dago zuzenduta, aldarrikapen eta ekintzak zabaltzeko kartel deigarriak egiteko tresnak emoteko helburuagaz. Ikastaroak lau saio izango ditu, 19:00etatik 21:00etara, abenduaren 9, 11, 16 eta 18an, hain zuzen. Ordenagailua eroan behar da.

Ikastaroa hasi baino aste bat lehenagora arte emon daiteke izena, Arratiako Udalen Mankomunitatean zein Arratiako udal-txeetan.

AREATZA

Aurtengo bigarren Bonodenda prest

Areatzako Orburu Merkatarien Elkarteagaz alkarlanean, Udalak bigarren antolatu dau Bonodenda aurtan. Urtailaren 4ra arte erabili ahal izango dira salmentara ateratako 400 bonoak. Oingoan, erosi eta gastatu aldi berean egin ahal izango da.

Erredakzioa

Bonoak 20 eurotan erosteko aukerea egongo da udaletxean, eta 25 eurogaitik trukatu ahal izango dira herriko komertzioetan. Maiatzean baino bono gehiago aterako dira, orduan 300 atera ziran eta kanpaina honetan 400 dira. Udalak 2.000 euro ipini ditu bigarren kanpaina honetan. Erosketak Orburu Merkatarien Elkarte osotuten daben dendetan egin ahal izango dira.

Aurkeztutako NAN bakotzeko gehienez bono bi erosi ahal izango dira, beti be 16 urtetik gora euki ezker. Bono bakotxa behin bakarrik erabili ahal da hurrengo baldintzakaz: ez da dirurik bueltatuko eta ordaindu beharreko kopurua 25 euro baino gutxiagokoa bada, bonoak metatu egin leitez. Debekatuta egongo da be bonoen truke dirua jasotea. Barritasun lez, oingoan bonoak erosi eta segidan gastetako aukerea emongo dau Bonodendak.

Maiatzeko lehenengo edizinoak euki zituen helburu bardinak dira

oingoak, herria bizirik mantenduteko ezinbesteko dira herriko dendak, eta hori bultzatzea eta herrian erosten dabenak saritu-

tea gura da. Udalak dei egiten ditu herritarrak erosketak herrian egin dagiazan, kanpaina honetan ez ezik, urte osoan zehar.

ETORRI AREATZARA EROSKETAK EGITERA

AREATZA BONO DENDA

VEN A AREATZA A HACER TUS COMPRAS

EROSKETAK %20 MERKEGEO

Azaroaren 25etik urtarrilaren 4ra

Desde el 25 de noviembre hasta el 4 de enero

ORAINGOAN, EROSI ETA GASTATU ALDI BEREAN AHORA COMPRA Y GASTA AL MISMO TIEMPO

- 1 EROSI ZEURE BONODENDA 20 EUROTAN UDALETXEAN**
• Aurtengo 400 bonoak 20 eurotan erosten dira (16 urtetik gorakoak).
• Bono kopuru mugatua.
- 2 BONOK 25 EUROTAN TRUKATU AHAL DITUZU BONODENDA SALMENTARA**
• BONO behin bakarrik erabili ahal da, bizi guzuzen hartuz:
• Ordaindu beharreko kopurua 25 euro baino gutxiagokoa bada, ez da dirurik bueltatuko.
• Bonoak metatu ditez.
• Debekatuta dago bonoen truke dirua jasotea.

ARRATIA

Makatzak Talde Ekologista sortu dabe

Erredakzioa

Inguruneaz arduratutako herritar talde batek, Arratia eta inguruko bizi kalidadea hobetu eta natura jagoteko helburuagaz alkarte ekologista bat eratu dau. Hori dala eta egitasmoa aurkezteko jardura bi antolatu ditue; *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentalaren emonaldia eta erraustegiaren gaineko berbaldia.

Makatzak taldekoen arabera, "hainbat gauza daukaguz hobetuteko gure eskualdean: autopista elektrikoaren zeharkatzea, aire kalidadea, basoen kudeaketa, gure erreken egoera, plastikoen presentzia masiboa, animalien ondoizatea, eredu energetikoa... Eragiten hasteko sasoa da". Taldean parte hartzeako edo informazio gehiago gura dauanak makatzak@gmail.com helbide elektronikora idatzi leike edo Facebook sare sozialeko Makatzak Arratiako Ekologistak orritik kontaktuan jarri.



Dokumentala eta berbaldia

Makatzak taldeak ekintza bi antolatu ditu daborduko. Abenduaren 11n, 19:00etan, *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala botako dabe Igorreko Kultur Etxean. Dokumentala, Aralar ondare natural eta kulturalaren leihoteaz harago, hausnarketarako eta gogoetarako bide emoten dauan pelikula da, Aralar mendile-

roaren konserbaziorako deia egiten dauana.

Hurrengo ekitaldia, datorren urteko urtailaren 23rako antolatu dabe. Orduan, GuraSOS plataformako kide batek, erraustegiak osasunean daukan eraginaz eta herrigintzatik eraturako ekimenen antolaketaz jardungo dau. Hitzordua, arrastiko 19:00etan, Lemoako Kulturgunean da.

IGORRE

Tonbola solidarioa Igorren

Erredakzioa

Dozena bat urte baino gehiago daroaz Igorreko Gabonetako tonbola solidarioak, Maribel Egiluz Congon eta Juanita Agirre Perun behar egiten daberen Igorreko misinolarien proiektuak lagunduteko dirua batzean. Aurten, abenduaren 12tik 15era zabalduko ditu ateak 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara Dimarako autobus geraleku parean dagoan lokalean, Sabino Arana 1 kalean.

Igorreko misinolarien proiektuak lagunduteaz gainera, saria eskuratu daiteke, era bitan: txartela saritua dalako edo, atzenengo egunean, sari barik gelditu diran txartel guztien artean egingo dan



zozketan. Lehenengo kasuan, oparia eskuz egindako amantal, manta edo baserritar jantzia izan daiteke, besteak beste. Atzenengo egunean barriz, otzara bat zozketatuko da. Sarien artean Beñat Etxebarria Athleticceko jokalaria igorretarraren kamiseteta dago.

ARRATIA

Baliabide gitxiko familietako umeak eskolaz kanpoko ekintzak egiteko aukerea eukiko dabe

Erredakzioa

Joseba Argoitia La Caixa Gizarte Ekintzako ordezkaririk, eta Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea dan Andere Ortuzarrek hitzarmena sinatu dabe. Ekimen honegaz umeen artean garapen intelektual, fisiko eta sortzailerako aukera bardintasuna sustatu gura da.

Arratiako Udalen Mankomunitateak eta La Caixa Gizarte Ekintzak hitzarmena sinatu dabe baliabide gitxiko familietako umeak eskolaz kanpoko ekintzak egiteko aukerea euki dagien. Helburua lortuteko, La Caixak 4.600 euro emongo deusaz Arratiako Udalen Mankomunitateari. Akorduari esker, Arratiako 7 eta 16 urte bitarteko hogeita hiru adinbakok



Amaia Zamalloa, Joseba Argoitia, Andere Ortuzar eta Zigor Aramendi.

kostu ekonomikoa suposatuten daberen ekintzak egin ahalko ditue aurtengo ikasturtean. Eskolaz kanpoko ekintza horreek, batez be esfortzu akademikoa, kirol-jarduerak eta jarduerak zientifikoari jargotzen dira.

ARRATIA

Produktu Teknikaria izateko lan eskaintza Gorbeialden

Erredakzioa

Gorbeialde Landa Garapen Alkartek 2020rako Produktu teknikaria kontratatuko hautaketa prozesua atara dau. Eskaintzen dan lanpostua 2020an turismoko Produktu Teknikaria izateko da, lanaldi erdian. Lanpostua lortzean dauanaren egin-kizuna Tekniko Kudeatzaileari lagundutea da, 2020ko Turismo Planaren

proiektua sortu, garatu, gauzatu eta justifiketan. Urtebeteko iraupena eukiko dau, eta luzagarria izan leiteke.

Turismoko unibersidade titulua, aholkulariaren/prestatzailearen profila buruzko prestakuntza homologaua SICTED programan, gitxienez sei hilabeteko esperientzia, euskera B2 (2. Hizkuntza Eskakizuna) edo baliokidea, zein B1 motako gidabaimena eta ibilgailua eukitea dira

beharrezko baldintzak. Balorauko dana ostera, prestakuntza eta esperientzia osagarria; helmuga, enpresa eta alkatere sarea ezetutea; eta, C1, C2 edo baliokideak eukitea.

Hautaketa prozesuak hiru fase eukiko ditu. Hasteko, abenduaren 5a baino lehenago, eskatutako beharrezko baldintzak egiaztatu eta izena emon beharko da Gorbeialde Alkartearen egoitzan. Bigarrenik, alkarriketea abenduaren 9an izango da, 09:00etatik aurrera. Amaituteko, kontratazino proposamena Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko jako 2020ko urtailaren 31 baino lehenago egingo dan Zuzendaritza Batzordean.

IGORRE

Alkartasun Azokea

Erredakzioa

Gazte solidarioak eta behartsuak lagunduteko Igorreko boluntario taldeak, lehenengo Alkartasun Azokea antolatuko dabe. Zementiarren 21ean eta 28an, 17:00etatik 20:00etara batutako objektuak, abenduaren 19an jarriko dabez salgai 17:00etatik aurrera. Igo-

ren izango da, Lehendakari Agirre kaleko autobus geltokiaren osteko arkupetan. Birziklatze lan ekologikoa, inguruko behar sozial batenganako sensibilizazioa, boluntarioak bultzatutea, zein proiektu jakin bateri lagunduten deusaz diru bilketea egitea dira helburuak, besteak beste. Lehenengo azoka solidario hau Indautxuko jantoki sozialera zuzendutako da, baliabideak azo ezin daberen pertsonen elikadura beharri erantzuteko asmoagaz; menu oso bat emon gura jakie, baldintza duinakaz, espazio jakin baten.

IGORRE

Gabon Jaia

Erredakzioa

Arratia Katekesi Taldeak urtero ospatuten dauan Gabon Jaia, Igorreko antolatutea tokau jakie aurten. Hilaren 14an izango da ospakizuna. Gabonen zentzua berreskuratu guran, "Gabonak Jesusen erara" da urte honetako gaia. Holan ba, jaialdian hartuko daberen konpromisua gabonetan "Jesusen jaiotzea Jesusen erara ospatutea izango da, Jesusen berak erakutsitako baloreakaz, beharizan gehien daukien pertsona eta kolektiboak kontuan hartuta beti be". Zapia erabiliko dabe sinbolo moduan. Izan be, abendu hasieran ume bakoitxak zapia ipiniko dau zugatzean, zapi bardina Gabon Jaia eroango dau gero, eta barriro be etxeko arbolara bueltauko dau ospakizunaren ostean. Herri bakoitxak, landutako balore bat adierazuko dau antzerki, bertso zein abesti bidez: austeridatea Bediak, gaixoak Lemoak, pertsona nagusiak Dimak, behartsuak Igorrek, migrantek Arteak, eta maitasuna Zeanurik.

Egitaraua: 17:00etan, harreraa trikitilariakaz eta Harribide Fundaziorako janari bilketea; 17:30ean, ospakizuna; 18:30ean, eleizatitako aterpera trikitilariakaz; 18:45ean, txokolata eta bizkotxoak.

ARRATIA

Zapatu gauean autobusa egongo da Arratiako herrietara Durangoko Azokatik bueltetako

Erredakzioa

Autobusa Lemoako tren geralekutik urtengo da 03:00etan eta 05:00etan eta Arratiako herri guztietara eroango dau jentea. Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), Bizkaiko Foru Aldundiarren laguntzeagaz, eskainiko dau debaldeko zerbitzu hau zapatu

(abenduak 7) eta domekea arteko gauean jentea etxera modu seguruan bueltau daiten, Durangoko Azokako ekintzez disfrutau ostean.

Autobus zerbitzu hau, udan herriko jaietatik etxera bueltetako autobus zerbitzuak daukan helburu bera dauka, etxerako buelta erraztea, hain zuzen, eta jente askok erabilten dau.

Olaxte
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaxteoptik@hotmail.es

Zugaitik BEGITUTEN dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA
eileke
• Psikologia
• Logopedia
• Fisioterapia
• Ulermen tailerra
• Jarrera arazoak
• Emozioen tailerra
• Psikomotrizitatea
• Adimen emozionala
• Trebetasun sozialak
• Estimulazio goietiarra
• Eta askoz gehiago...
652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

Kili-Kili
Antzo eta Puztutako
Lehendakari Agirre 10 · IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 63 61

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK
Elexalde, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 631 64 83 - 908 804 019

izkaifisios
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 35 08
igorre@izkaifisios.com
ANDRA MARI KLINIKEA
Pontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@izkaifisios.com

DIMA

Andran kontrako indarkeria dala-eta, Dimako Udal Gobernuaren jokaerea salatu dau Andraizeak

Legegintzaldi hasieran, Udal Gobernu barriak puntu morea kendu eban udaletxeko balkoitik.



Konzentrazioa Diman.

Erredakzioa

Andraizeak, Dimako andra taldeak, Andren kontrako indarkeria ezabatuteko nazinoarteko eguna dan zemendiaren 25ean ipini eta urte osoan bertan ixteko eskatu eban. Baina ez zan onartu. Puntu morea, udaletxeko ohar taulan, harrera gunean eta webgunean dago. Baina balkoian ez.

Puntu morea ipinteko eskatuteko idatzi bat sartu eban Andraizeak udaletxean. Eta zemendiaren 25eko aurtengo programazioa aurrera aterateko, zera be eskatuten eutsan Udalarari: parkeko lau banku morez pintetea, zemendiaren 25ean adierazpen instituzionala egitea, zemendiaren 28ko antzerkirako lokala eta aulkiak ipintea eta Andraizeagaz batzartutea.

Udalaren ezetza

Antzerkirako lokal eta aulkiak jaso eban Udalaren onarpena, baina bankuak morez pinteteari jagokonean, Udalak ez eban onartu eskaerea "modu egokiagoak egon ahal diralako, udal altzariak kaltetu barik". Adierazpen instituzionalari jagokonean be, Udal Osoko Bilkureak ez eban onartu EH Bilduk aurkeztutako Andraizeak proposatutakoa. "EH Bilduri adierazpen bateratua onartzeko proposame-

na egin geuntsan EAJk eta Dime Aukeratuk. Testua Udal Osoko Bilkurak onartu eban EAJ eta Dime Aukeraturen aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzioagaz" lurdana Acasuso EAJ-PNVko zinegotziaren arabera. Bere esanetan, Andraizearen mozinoa ez onartzeko errazoa, "hor agertzen diran konpromiso guztiak Udal gobernuak ezin dauzala bete" izan zan.

Andren taldeak Udaleko inor ez zala eurekaz hartu-emonetan ipini, euren moziona "ez zala onartuko komuniketako eta adierazpen alternatiboa egongo zala esateko" adierazo dau.

Erakundeen erantzukizuna

Puntu moreagaz erakundeak adierazoten deuse herritarri indarkeria matxistaren kontra dagozala. Izan be, erakundeak ezin dabe euren erantzukizuna saihestu eta argi eta garbi adierazo behar dabe indarkeria matxistari ez deusiela babesik emongo. Hori dala eta, Andraizeak salatu gura dau, Udal Gobernuan dagozanen jokabidea; baita sufridu dabean herritar batzuen jarkerak be, "kartelak apurtu eta erantzun ez egokiak" emon deuseela-eta. Udal Gobernuan dagozanai, gai honen inguruan hausnarketa sakona egiteko be eskatzen deuse Andraizeak.

ARRATIA

Metalgintzako Hitzarmenerako aurreakordio lortuta greba deialdia bertan behera geratu da

Zemendiaren 26an, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak, FVEM patronalagaz akordioa lortu eban Metalgintzako Hitzarmenerako.



Erredakzioa

LABen ustez "aurreakordio historikoa" da eta CCOOen arabera, "aurreakordioak amaiera emoten deutso metalaren Bizkaiko gatazkeari". ELAK barriz, gai batzuk hobetu behar dirala eta denporea behar daua patronalaren proposamena aztertuteko dino.

Aurreakordioak hiru urteko indarraldia dauka eta oin arte sektore honetan ez egozan edukiak ditu, hilabete luze honeetan sindikatuak eskatutako asko. Holan, subrogazioa lortu da. "Subrogazio klausula txertatuta, egonkortasuna lortzean da kontrata lotutako sektoreko beharginen artean" azaldu dau CCOO sindikatuak.

Sektorean dagoan andren diskriminazioari aurre egiteko neurriak

be jasoten ditu aurreakordioak. Bardintasan batzorde bat sortzeako konpromisoa dago, enpresetan bardintasan planak egiteko eta kontratazioak beharginaren sexua kontuan izan barik egiteko. Hori dala-eta, "hurrengo urteetan, andren presentzia hazten joatea" ekarriko dabela neurri honeek uste dabe LAB sindikatukoak.

LABen arabera, aurreakordioak dualidade eta estatalizazio mehatxuagaz amaituten dau. "Metalgintzako beharginak urteak eroezan hitzarmen barik eta behargin barriak dualidadea sufriduten (lan baldintza desbardinak lan bera egiteagaitik). Era berean, behargin guztiak eragiten eutsen estatalizazioaren mehatxuak. Hitzarmena barritzeagaz lortu dogu prekariedadea hedatzeko egoera bi honek sektoretik desagertzea".

Gainera, adostutako aurreakordioak, malgutasunari mugak ipini eta beharginen egonkortasuna bultzatzen dau, ETT bidezko kontratuak desagertzeko bidea zabaldu eta lan osasunean be pausu barriak emoten ditu.

Lan baldintzak hobetuteaz gainera, soldata igoerea be jasoten dau LAB, CCOO eta UGTk sinatutako aurreakordioak. 2019rako, KPI gehi %1,75eko igoerea eta 2020 eta 2021erako, KPI gehi %1,5ekoa.

Negoiazino luzeak

Zemendiaren 26an adostutakoa egonkortu eta itun ofizial bihurtzen bada, hurrengo egunetarako deitutako greba ez da egingo, baina alde aurretik asko izan dira egindako lan-ixte eta burrukak. "Hamar greba egun egin doguz eta beste 8 greba egun egiteko prest ziran beharginak, patronalak gure aldarrikapenak onartu izan ez balitu" dinoe LABetik. "Gaur barrero erakutsi da mobilizazio-negoiazino binomioak emaitzak emoten dituala. CCOOk azken urte biotan negoiazino mahaia bizirik mantentzearen alde egin dauan apustua eraginkorra izan da, mobilizazio sendoa bultzatuz, negoiazinoari eta sektoreko langile klase osoari mesede egingo deutan sektoreko hitzarmen bat lortzeari inoz uko egin ez deio" dinoe CCOOtik.

ELAK barriz, atzerapausuak be ikusten dauz beste sindikatuak aurre adostu dabean hitzarmenean. "ELAK, patronalak aurkeztutako proposamenaren lehen azterketa baten, gai batzuk hobetu behar dirala uste dau. Kezkaz ikusten dau, gainera, atzerapausuren bat gertatu dala aurreko hitzarmenetatik". Horregaitik, beharrezkotzat jotzen dau testua aztertzea eta bere ordezkariak batera emon beharreko hurrengo pausuak ebaztea.

AREATZA

Aurrekontuetarako ekarpenak telefono mobikorretik be egin ahal dira

Erredakzioa

Areatzako Udaleko gobernu taldea 2020ko aurrekontuetarako herritarren ekarpenak jasoten dabil. Aurreko urteetan legez, hainbat bide daukie horretarako. Beste batzuen artean, *areatza-partehartzea@gmail.com* helbide elektronikoa, udaletxean ipinitako postontzia edo app-a. Aurten gainera, Udalak, galdetegi bat prestatu dau herritarren eretxiak eta inpresinoak jasoteko. "Areatzako Udalak inkesta bat prestatu dau Udalean emoten diran zerbitzuak,

zuzentzen diran arlo desbardin eta egin beharreko inbersioi buruzko eretxi eta proposamenak batzeako" azaldu deutso BEGITURI Asier Garcia Areatzako alkateak. Inkesta hau udalaren webgunean dago eta Areatzapp aplikazio-tik edo whatsapp-etik jasoteko aukerea be badago. Abenduaren 10era arte bete daiteke.

Ekarpenak jaso, aztertu eta batzuk aurrekontuetan sartu ostean, hilaren 16an, 18:30ean, aurrekontuak aurkezteko batzarra egingo dabe Udal Aretoan. Bertan aurrekontuen helburu nagusiak eta

proiektuak asetzea bilatzen dabean betebeharrak azalduko dira. 2020ko aurrekontua 1.500.000 euro ingurukoak izango da.

Herritarren tresna

Herritarren parte hartzea garrantzitsutzat jotzen dau Udalak. Izan be, Udalaren lana kontrolatuko eta oreka ekonomikoa bermatuteko tresna garrantzitsuetakoa da urteko aurrekontua eta diru publikoa zertan inbertidu gura dabean adierazoteko aukera daukie herritarren euren ekarpen bidez.

mediku naturista Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
argaltzeko terapia 94 600 21 12 - 94 600 87 56
kosmetika naturala L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
elikagai biologikoak 94 631 14 39
zelakoentzat elikagaiak
estetiziana

ABENDUAREN 3A

Euskerearen Eguna, datorren urteko Euskaraldiari begira

Igaz egin zan lehenengoz Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa eta izan eban eraginaren balorazioa egin ostean, urte birik behin egitea ebatzi dabe antolatzaileak. Beraz, bigarren edizinoa datorren urtean izango da. Euskerearen erabileran eragiten dau eta hori da euskalzaleen kezka nagusia. Eta Euskerearen Egunaren helburua be horixe dana lez, aurten datorren urteko Euskaraldia aurkeztuko dabe hainbat herritan.



Erredakzioa

Arantzazu, Areatza, Bedia, Dima eta Igorren, beste ekintza batzuen artean, Euskaraldiari begirakoak dagoz. Holan, Arantzazun, Arantzazuko Kultur Batzordeak antolatuta, Euskaraldiari bultzada emoteko, sare bat egingo da Euskaraldiagaz lotutako desioak eta bizipenak itsatsiz. Euskerearen Egunean bertan izango da, 18:30ean, Kultur Gunean. Partaideen argazkia atera eta manifestua irakurriko dabe. Amaitutako, txokolatea eta bizkotxoak egongo dira egunari amaiera emoteko.

Areatzan, Euskaraldiaren aurkezpena hilaren 13an izango da 19:30ean. Ilaski Serrano telebistako aurkezlea egongo da bertan. Euskerearen Egunean, abenduak 3, Guraso Elkarteak antolatutako ekintza bat egongo da eskoletan, bigarren eskuko jolasen merkadu txikia, txapa tailerra eta txokolatea eskolako aterpean, hain zuzen be. 19:00etan, Euskera Batzordeak antolatutako *Andre eta jabe*, poesia, bertsoa eta musikea buztartzen dituan ikuskizuna egongo da Udaleko Areto Nagusian.

Aurretik, abenduaren 1ean, "III. Euskerea plazara atera" herri irakurketa egin zan, 50 lagunek hartu eban parte bertan.

Bedian, abenduaren 9an, 18:00etan, herriko liburategian egongo dira Euskaraldia 2020ko antolatzaileak zeintzuk diran emon beharreko pausuak eta egin beharreko ekintzak azalduten.

Diman barriz, hilaren 2an, 19:00etan, berbaldia egongo da *Euskaraldia gehiago*,

gehiagorekin, gehiagotan titulupean, Abaroa Aretoan. Hurrengo egunean, 17:30ean, ekitaldia egingo dabe frontoi txikian. Bertan, adierazpena, bideoak, jantziak, bertsolariak eta abar egongo dira. Bitartean sinadura bilketea egingo dabe "Nigex harremanak euskeraz" izenpean. Ospakizunak amaitutako, hilaren 6an, 18:00etan, *Bakean dagoena, bakean utzi* atzezlan eskainiko dabe Abaroa Aretoan.

Diman bideoak be grabau dabez herritarrak. Dimsten Herri Hezitzailearen alkarteak, herriko ume eta gaztetxoek berba eta irudiz osotutako bideo bat egiteko, abenduaren 2a baino lehenago Zer da Euskara zuretzat? itaunari erantzuten deusien 20 segundoko bideoak bialtzea eskatu eutsen dimoztarrak.

Igorretarrak, 18:00etatik 19:00etara, Euskaraldiagaz lotutako bizipen eta gurariak idatzi eta eskegiko dabez Kultur Etxeko plazan horretarako prestatuko daben sarean. Gero, 19:00etan, ekitaldia hasiko da Kultur Etxean. Han, Inbiu eguneko irudiak ikusi, esaera zaharren bideo lehiaketaren bideo emonaldia eta sari banaketeta eta datorren urteko Euskaraldiaren aurkezpena egingo dira.

Artean be, euskereagazko desioak idatzi eta eskegiko ditue plazan 17:00etatik 19:00etara. Bitartean, 17:30ean, Altxorren bila ibiliko dira umeak eta 18:00etan, taloak egongo dira. Gero, jantza modernokoak girtuko dabe euskerearen jaia *Gure nahia* kantuaren koreografiagaz.

Ume eta nagusientzako ekintzak
Zeberion euskaldun barriak izango dira protagonista Euskerearen Egunean. Baina aurretik, 15:00etan, eskolako umeak *Peru Tximaluze* liburuaren irakurketa jarraitua egingo dabe. XIX. mendean Heinrich Hoffmannek sor-

tutako ipuina da *Peru Tximaluze*, Jürgen Lange alemaniar jatorrizko zeberioztarrak eta Zeanuriko Jurek Ziemkiewicz iztuli, eta 2008an Zertu Kultur Elkarteak argitaratu ebana Zeberioko Udalaren laguntzeagaz. Ondoren, 18:30ean, Zeberion bizi diran euskaldun

barriak euren bizipenak konpartiduko dabez udaletxera hurrerazten diranakaz.

Zeanurin, Euskerearen Egunean, ekitaldi bat egingo dabe herriko hainbat alkartek eskolan. Testu bateratua irakurri eta danak batera abestu egingo dabe.

KONTZERTUEN OSTEAN ETXERA BUELTATZEKO AUTOBUSA LEMOA-DIMA-ZEANURI

DURANGOKO AZOKA - KONTZERTUAK

NOIZ:
2019ko ABENDUAREN 7an (zapatu gauean)
NON:
LEMOAKO EUSKOTREN ESTAZIÑOAN
ORDUTEGIE:
GOIZEKO 03:00etan / GOIZEKO 05:00etan





**Arratiako
Udalen
Mankomunitatea**
Gazteria Arloa
Área de Juventud



Bizkaia
Foruak
diputación foral

Ondoren txokolatea bananduko da. 17:30ean, udaletxean, hilaren 15ean izango dan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Bizi dantza* ikuskizunerako sarrerak erosi ahal izango dira. Ikuskizun barri hone-tan, pailazoak jantzan ipiniko ditue umeak eta nagusiak. "Zatoz gugaz jantzara, atera zure animalia plaza-ra!" dinoe Katxiporretakoak ikuski-zunaren sinopsian.

Baina aurretik be hasita ego-zan zeanuriztarrak euskerearen inguruko jardueretan parte hartzean. Izan be, zemendiaren 30ean, Zea-nuriko Eguzkiola Kultur Elkar-teak, Lekomeko (Lapurdi) Baigura ikas-toleagazko jardunaldi solidarioa antolatu eban. Erronkarierearen gaineko berbaldia, bertso bazkaria eta Kantu Bat Garakoen kantaldia egon ziran, euskerearen aldeko beste ekintza batzuen artean.

Lemoan be aurretik egin ebe-zan euskerearen aldarrikapen eta ospakizuna, zemendiaren 25eko aldarriagaz bat eginda, 29an, hain zuzen be. Berba egitea, komunike-tea izan zan bitartekoa eta helburua bera eta horretarako berbodromo bat antolatu eben. Hogei personak hartu eben parte, "Aske maite, aske bizi" gaiaren inguruan.

begitu
arratia ubide zeberio

**2019AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN!
URTEA AMAITHU ARTE BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.
Horretarako **2019an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkar-teak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?
Aurreko hamabostaldiko irabazlea Amaia Jugo izan da.

Hori egiteagaitik Areatzako Bainuetxean lagun birezko zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.

Areatza Bainuetxea

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:
Zertu Kultur Elkar-tea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Igorren

**euskeraz
bizi
gura dogu**

IGORREKO UDALA

A cartoon character with a red star-shaped head, large eyes, and a brown body, standing on a purple background.

ZIKLO-KROSA

Nazinoarteko ziklo-kros lasterketea bueltan da

Egunean berean ehundik gora persona egoten dira beharrez, lagunduten.

Erredakzioa

Datorren urtean be ziklo-krosa antolatuta ezker, egutegiak halan aginduta Santa Lutz egunean izango leiteke, lasterketa hau San Kristobalen antolatuten hasi zan egunean hain zuzen be. Atzen urteotan lez, bardintasuna presente dago kartelean, eta halan izango da lehian zein sarietan be.

Abenduaren 8an izango da, domekan, 43. ziklo-kros lasterketea. Goizeko 10:00etan hasiko dira Kadeteak, neska eta mutilak; 10:45ean, Gazteak (gizonak); 11:30ean, Kadete eta Gazteen sari banaketea egingo da. Andrazkoen txandea 12:00etan izango da, Gazteak, Sub23 eta Elite. Gizonak ostera, 13:00etan lehiatuko dira, Elite eta Sub23 kategoriakoak. Egitaraua 14:00etako sari banaketeagaz amaituko da. Oindino kontratu batzuk zarratuteko badagoz be, maila handiko ziklistak ikusteko aukerea egongo dala adierazo dabe Juan Mari Zurinaga eta Ander Gorospe AZEko presidente eta kideak. Euskal Herriko eta Espainiakoez gainera, Frantzia, Belgika eta Italiako txirindulariak be egongo dira gurean aurtan.

Senderos Rojos izeneko webguneak zuzenean emitiduko dau lasterketea, streaming bidez. Eta, podiuma eta abarrak ipintez arduratuten dan SportPublic-ek be bardin egingo dau. Urte honetan ETBk laburpena baino ez dau eskainiko; hainbeste urtetan ordaindu bada be, oingoan ezin deutseela telebistaren gastuak aurre egin esan dabe Zurinaga eta Gorospek.

43 urtean bi izan dira nazinoartekoak izan ez diran lasterketak:

lehenengoa, eta igazkoa. "Atsedentoxa" hartuta, ahalegin handia egin dabela kontau dabe antolatzailak aurtengoa nazinoartekoa izan daiten. Horrenbeste edizino egin ostean, kontetan be kostau egiten dala dino Zurinagak. Eta, urteak esperientzia dakarren arren, presidentek dino zeozer faltauko dan bildurra, dana ondo urteteko gogoa, atzen baten urduritasuna eta ezinegona ez dirala sekula faltetan. Horren harira Gorospek adierazo dau, gero eta baldintza zorrotzagoak bete behar izaten dirala eta horrek, eurak be prestatutea ekarri daua. Baina, biak be aitortuten dabe gero eta gatxago egiten jakiera dana aurrera eroatea.

Laguntzaile txiki zein handiakaz sano eskertuta dagozala dinoe AZEkoak, herri osoagaz eta Udalgaz batez be. Ez dogula daukaguna apreziatzen pentsetan dabe bi igorretarrak; izan be, euren ustean estatu mailan ez dago ez Igorrekoalako zirkuiturik, ezta egunean berean egoten dan laguntzaile kopurua baino handiagorik.

Beste alde batetik baina, arduraz dago Zurinaga eta Gorospe. Arratian, eta batez be Igorren ostatu faltea dagoala dinoe. Atzen urteotan lo lekuri topau ezinik ibiltzen ei dira ziklista, mekaniko, zuzendari, eta arbitroentzat. Hori dala eta, eskualdean zein herrian bertan hutsune hori beteteko zeozer egin beharko leitekela pentsetan dabe, dagozkan itxita edo beti beteta egoten dirala argudiatuz. Alderdi hori konpondutea ziklo-kros egunerako bakarrik ez, urtean zehar Igorren dagozan enpresa zein taberna eta komertzioentzako be mesedegaria izango zala dinoe AZEkoak.

LASTO JASOTZE

Tubi txapeldun hamargarrenez Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketan eta Loiola bigarren

Erredakzioa

"Urteak aurrerantza joakuz baina aurtan be bertan egongo gara" idatzi eban sare sozialetan txapelketako aurreko egunean Jose Martin Bustinza "Tubi"k, baina aurreko bederatzi urteetan lez, txapela jantzi eban dimoztarrak zemendiaren 23an Mundakan jokaturako Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketan. Kirolari arratiarrak, 22 jasoaldi egin eutsazan 45 kiloko fardoari minutu bitan. Jon Loiola, Diman bizi dan igorretarrak bigarren egin eban, 20 jasoaldi eginda. Halanda be, "emaitzai jagokonez ez zan izan txapelketarik onena, danok be gure mailatik behera ibili ginan eta" adierazo eban Loiolak.

Hirugarren Andoni Elizondok egin eban, Loiolak baino jasoaldi bat gitxiago eginda. Laugarrena Bingen Erleaga izan zan 14

jasoaldi eginda eta bosgarren Joseba Legarreta 11gaz.

Andrazkoak erakustaldia

Ruth Linaza lemoztarrak, Esti Ciudad eta Garbiñe Lopez de Uraldek erakustaldia egiteko aukerea izan eben. 30 kiloko fardoak 5



Loiola ezkerretik hasita lehenengo eta Tubi txapelagaz erdian.
Argazkia: Idoia Barrenetxea.

MENDI FILM

Harria Harria metraje laburra BBK Mendi Film jaialdian

Dimegaz Kultur Elkartek 2017an hasi eban bere

lehenengo proiektua aurkeztuko dau laster.

Janire Etxabek egin dau gidoia, eta Oier Plazak

errealizazioa. Abenduaren 7an, 19:30ean, Dimegaz

Kultur Elkartean lana proiektuak da BBK Mendi

Film festibalean: Harria Harria.

Erredakzioa

Egileen esanetan, "amesetatik errealidadera" egin dabe salto metraje labur honeguz. Bost jantzari bertikal, eskalatzaila bat, Oreka Tx-eko txalapartariak, Miren Narbaiza abeslaria eta Karmele Gisasola Euskal Herriko harrijasotzaila txapeldunak hartu dabe parte. Proiektuak andrak harriagaz hartu emona eukiteko daukazan era desbardinak erakutsi gura dauz. Horretarako, Gautegiz-Arteagako Andrabide kanterea aukeratu dabe

filma grabetako, berenberegi.

Bideo *performancea* grabetako orduan, batetik gizakiak sunsitutako espazio naturalak berreskuratutea gura izan da, zentzu barri bat emonaz; eta, bestetik, andren presentzia eta gaur egun hartuten dabizen espazioa erakustea. Kirol tradizioaletik harago, pelikulan jantzearen artea eta Xabier Sukiaren poesia buztartu egiten dira naturan.

"Harritik herriak, eta herrietatik gu", lurraren zauriak zentzua topetea geure beharra be badala dinoe taldekoak, harriagaz zorre-

metroko altuerara 14 aldiz altxau eban Lopez de Uraldek, 10 bider Linazak eta 7 Ciudad-ek. Aurtan lehenengoz andrazkoen txapelketa ofizial bat egin bada be, Arabako Lasto Jasotze Txapelketea Gasteizko jaietan, hain zuzen, Euskadiko Herri Kirol Federakundeak Euskadiko Txapelketea egiteko aukerea datorren urtera arte atzeratu dau. Izan be, Euskadikoa inoz egin ez dana lez, 2020 urtearen hasieran ospatuko dan Batzar Orokorrean aztertu eta baieztatu beharko dabe. "Guk txapelketea egitea gura izan dogu, baina batzar horren zain gelditu beharko gara" adierazo dau Linaza, Lemoako kirolariak.

tan gagozala, eta arrakalok gure herri egin gura dabez, babesgune eta sorgune. Herriko jantza, kantu eta poesiak magia basati bihurtuten ei dira arrakaladun hatz horretan, modu horretan harriari lotutako euskal kulturearen jarraipenari bide emonaz eta eginaz. Egileak dinoenez, "Harria lehiotza da mundura begira. Mundua gure herria ikusten ari da".

Dimegaz Kultur Elkartea

2017an hiru lagunaren artean sortu eben alkartea, Xarles Braden, Ainhoa Bilbao eta Janire Etxabek, hain zuzen. Eskaladea eta jantza bertikala buztartuten dituan *performance* proiektuak babestuteko, lagunduteko eta partekatuteko ipini eben martxan. Oin dala hilabete batzuk, Enara Lariz itzultzailea, Aitor Gonzalez argazkilaria eta Lorea Larrinoa disenatzailea taldera batu ziran.



43. ZIKLOKROSS - IGORRE
2019 ABENDUAK 8

10:00
KADETEAK (Mutil eta Neskek)
CADETES (Masculino y Femenino)

10:45
GAZTEAK
JUNIOR

11:30
SARI BANAKETA
KADETEAK ETA GAZTEAK
ENTREGA DE PREMIOS
CADETES Y JUNIOR

12:00
EMAKUMEAK:
GAZTEAK - SUB 23 - ELITE
FEMINAS:
JUNIOR - SUB23 - ELITE

13:00
GIZONAK: ELITE - SUB 23
HOMBRES: ELITE - SUB 23

MOTORRAK

Pedro Sagarna: "Hogeta hamar urte pasau dira, eta 'hau ezin da itxi' esaten deuste"

Ez ziran espero moduan ehun motorzale batu Zeanurin, baina aurten be errekor barria jarri dabe motordunak: 72 lagunek armozau eben, eta horreetatik 70ek egin eben ibilbidea.

Erredakzioa

Falta ziranai kamiseteta gorde deutse Pedrok, 30 urte bete da bezala erakusten dauan kamiseteta. Bestela be salgai daukaz, bost euroan. Endurokoak, quad-ak, trialekoak eta buggyak izan ziran lupetz artean ibili ziran motorrak.

Ze herritatik etorri dira aurten?

Leioa, Matiena, Durango, Mañaria, Gasteiz, Dima, Zeberio, Otxandio, Lemoa, Gernika, Zornotza, Areatza, Artea, Igorre, Bedia, Etxaguen, Otxandio eta Zeanurikook osotu dogu urte honetako taldea. Atzenengo orduan hainbat izan ziran etorri ezin izan ziranak, baina halanda be 70 batu ginan, ez da bromea. Jenteari sano gustetan jako urtero etortea. Gasteizkoak lehengoan esan euskuen euren zat inportanteena ez dala kilometro asko egitea edo buelta handia emotea, eurentzat jentea ezetutea eta urteroko ohiturea ez galdutea dala kontua.

Nor joaten da aurretik?

Nire anaia, Iñigo. Gero, bidekurutzetan nori non gelditu esaten deutso anaiak, bidez ez konfunduteko. Jenteak asko lagunduten dau. Urtekerearen aurreko domekan herriko bost lagunegaz ibilbidea errepasau eban Iñigok, ondo dagoala ziurtatuteko. Normalean ibilbide bardina izaten da beti, jente asko eroateko egokia dalako, segurua. Ibilbidean zehar noizean behin gelditu, armozau... "holakoak apenas egiten dira", esan eustan Fausto Motak beragaz berba egin nebanean, aurten ezin izan da etorri eta.

Ibilbideko pasadizurik bai?

Komeriak erabili genduazan motordun bategaz. Izan be, hiru lau

bider gelditu zan gasolina barik. Handiena zan bat baino gehiago ibili jakola gasolinetara eta bota, eta gasolina falta. Asko animau genduan. Baliente jokatu eban, eta atzenean errekorridua amaitu eban.

Armozua ibilbidearen zati garantzitsu bat da, ezta?

Bai horixe. Armozurako jentea goseagaz eta hotz apur bategaz egoten da. Danok batera motorrak itxi eta armozetea gustau egiten jako jenteari. Arrautzak, solomoa, pernila, patatak eta urdaia jaten doguz, edateko gura dogunagaz eta kafeagaz. Kontuak kontetako momentua izaten da, eta aurten begien aurrean inozko mahaikada handiena neukala, urteurren biribilgaitik berba batzuk esateko ez eusten eskatu ba! Lotsatuta baina halan egin neban, eskerrak emon neutsezan hogeta hamar urte bete doguzalako, eta urte askoan urtekerea egiten segidu daigun opatu neutsen.

30 urte fasil esaten da...

Bai... horixe pentsetan dot nik be. Urte asko dira. Nik lehenengo urtekeran akaso ez neban urtengo, ez dakit zenbagarrenean hasi nintzan. Iñigo eta Arturo anaiak hasi ziran, eta geroagoan ni. Hasikeran Zeanurikoak bakarrik batuten ginan. Beranduago Areatzako jentea etorten hasi zan, eta Murgiakoak be bai.

Noz arte?

Ba, ez dakit. Jenteak animau egiten deutso. Hogeta hamar urte pasau dira eta "hau ezin da itxi" esaten deuste. Urteren baten pentsau dogu saltsa handiegia dala be, baina batzuk abuztu atzenerantz edo urri lehenegorantz "e, ze egunetan da aurten?" preguntetan hasten dira eta animau egiten gara. Jenteak urtekerea antolatuten segi-

duteko eta jente gehiago batuteko gogo dauka, eta ilusino hori transmitidu egiten dabe. Gazteak oso gogotsu ikusten dodaz.

Kuriosidade lez, aurten pasau jata gazteetako batek esan eustala "gorantziak emon deustez zuretzako", nik ea nok galdetu eta berak "nire aitak", bere aita nor dan galdetu eta "Zigor Gurtubai", lehenago gugaz motorrean etorten zan bat hain zuzen be. Edo, gugaz etorten zan Lemoako bat bere semeagaz etorri zan lehengoan adibidez.

Akorduan daukazu zenbat urtegaz hartu zenduan lehenengoz motorra? Nok irakatsi utsun?

Hamar urte ingurugaz izango zan. Etxean beti euki doguz motorrak. Esango neuke Arturo anaia hasi zala motorrean, eta gero Iñigori erakutsi eutsala. Nire anaia Iñigori beti gustau izan jako asko motorra, oso abila eta balientea izan da beti. Eta, gero, Iñigok niri erakutsi eustan. Estankoa eukiten eban gure osabeak, motor zahartxo bat eukiten eban, Guzzi markakoa, eta haregaz hasi ginan; gero apur bat barritxoagoa eta, atzenean, basokoagaz jarraitu genduan. Hasikeratik ilusino sortu deuskun zeozter izan da motorra.

Ze aldaketa igarri dozuz hogeta hamar urteotan?

Lehen motorrean ibiltzen urtetan ginanean denpora gitxian beti aberia edo arazoren bat eukiten genduan, motorrak zahartxoak izaten ziran eta beti konponduten ibiltzen ginan. Oin ostera jentea oso motor barriakaz, modernoak dator. Ez dakit batzuen gurasoak aberatsagoak diran edo zer baina anaia be konturatu zan urtekerako egunean egoazan motor batzukaz. Nirea aspaldikoa

PELOTEA

Ainhoa Romero lemoaztarra Bizkaiko torneoan txapelduna



Nora Mendizabal, Amaia Alday, Iera Agirre eta Ainhoa Romero.

Erredakzioa

Zemendiaren 30ean jokatu zan II. Bizkaia Txapelketako bikoteen finala Bilboko Bizkaia frontoian. Arratiara txapel bat ekarriko ebe-la, argi egoan, finala jokatu eben bikote bakotxean arratiar bat egoan eta. Izan be, Iera Agirre eta Ainhoa Romero lemoaztarra, Amaia Alday dimoztarra eta Nora Mendizabalen kontra neurtu ziran. Agirrek eta Romerok lortu

eben txapela 22-12 emaitzeagaz partidua irabazita.

Agirre eta Romero aurretik joan ziran denpora guztian markagailuan eta dimoztarrak eta gipuzkoarrak ezin izan eben ezer egin partiduari bueltea emoteko. Azkenean, Agirrek eta Romerok lortu eben txapela, txapelketako partidu guztiak irabazita.

Igaz baino jente gehiago egon zan harmailan partidua ikusten, 500 lagun inguru.

da baina zegaitik aldatuko dot arazorik emoten ez badeust? Esan gura dodana da jentea ez datorrela lehenagoko moduan motor zaharrakaz. Guretzat oste-

ra balore handia eukien geunkazan motor zaharrak.

Beste alde batetik, parte hartzaile kopurua da aldatu dana, urtetik urtera gehiago gara.



Iñigo eta Pedro Sagarna anaiak, ilobakaz.

Gure ikastetxeak
Euskalduna kalidadezkoa herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Darrigorrezko Bigarren Hezwuntza
Datxilergoan
Hezwuntza Zuziloan
2 urtetan 18ra

LEHIAKETEAK

Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketako sari banaketa ekitaldi beroa

Abenduaren 22an, arrastiko 18:00etan hasiko da ekitaldia Igorreko Kultur Etxean.

Erredakzioa

Euskal Herri mailako lehiaketako sari banaketa izanda, jagokan mailako ekitaldia prestau dau Zertu Kultur Elkarteak aurtengo ipuin erotikoen egilei sariak emoteko. Izan be, gaiagaz girotzeko bakarriketea eta beste ikuskizun bat be egongo dira. Eta publikoaren artean, jostailu sexualak zozketatuko dira.

Ezin zan bestela izan, eta sexua eta erotismoa izango dira iluntze horretako ardatzak. Oihan Vega te-
lebigak aurkezle, irrati esatari eta

musikariak, *Zergaitik praktikatzen dugu sexua gaztekeraz?* izeneko bakarriketan, argituko dau umorez misterio hau. Eta berea ez da izango gaueko ikuskizun bakarra; publikoari irribarre gehiago aterateko beste saioen bat be egongo da, baina antolakuntzak momentuz, ez dau horren barririk emon gura; sorpresea izango da. Misterioa mantenduteko, akaso.

Dana dala, gaueko protagonistak, aurtengo ipuin erotikoen onenen egileak izango dira. Honeek Zertu Kultur Elkarteak lehendakaria eta

Igorreko Udaleko ordezkari baten eskuetatik jasoko ditue sariak.

Atzenik, publikoaren artean, klitori xurgagailua eta arrautza itxurako masturbazio jostailua zozketatuko dira. Antza, ekitaldia amaitutakoan, gaua hasi baino ez da egingo batzuentzat.

Lehiaketea

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetatik bialdutako 17 ipuin dagoz le-
hian. Euretako 3 Arratiako egileak sortu ditue. Asko izan ez arren, egileen dibersidadeari emoten deusie balioa eta hurrengo edizioetan kopurua hazten joango dala uste dabe antolatzaileak.



ZEBERIOKO ESKOLEA

Zeberio, Txipre, Letonia eta Txekiako umeak ikasle eta irakasle

Zeberioko eskoleak hamazortzi urte daroaz Erasmus + proiektuagaz. Herriko umeak txikitatik dakie seigarren mailan kanpora joango dirana.

Erredakzioa

Txipre, Letonia eta Txekia dira aurtengo Zeberioko eskoleagaz batera Erasmus + programearen barruan proiektu komuna aurrera errotan dabizen herrialdeak. Zemendiaren 18tik 24ra artean, Europako hermeretzi ikasle eta zortzi irakasle egon dira Zeberion. Urtailean, Letonian batuko dira barriro, eta kurso amaieran osteran, Txipren. Zeberioko Zubialde eskolatik 6. mailako ikasle guztiak egiten dabe biajea; aurtengo hamabi diranez, biaje bakotxera seina ume joango dira, irakasle bigaz batera.

Oingoan, energia da ikasleak alkarregaz landuten dabizen gaia, baina eurak bakarrik ez, zeharka eskola guztiak landuten dauan gaia da eta. Bi urtean zehar jarraipen bat-
tegar jorrotuten dan proiektua Zeberioko eskoleak koordinetan dau, eta proiektua kudeatuten dauana Izaskun Garrote bertako ingeles irakaslea da, hainbeste urtetan lez. Ingelesa tresna izanda, Europako herrialde batzukaz batera proiektu

baten behar egitea da helburua. Edizino honetan gaia energia dala eta, energia zelan sortuten zan eta sortuten dan ikasten dabiz gazteak. Bertako aitita-amamakaz egoteko asmoa be badaukie, lehenago zelan bizi ziran jakiteko. Txipre, Letonia eta Txekiako etorri diran bisita honetan hainbat izan dira lau herrialdeetako umeak bisitatu dabazan lekuak: Muskizeko El Pobal burdinolea, herriko jubilauekaz batera taloak



Ikasle eta irakasleak Zeberioko Errementari Museon.

egin ebezan Zeberioko errotea, Zumaia-ko flyscha, zein Guggenheim museoa; eta, olatuen indarra aprobetxetan dauan Europa osoko plan-
ta bakarrera be joan dira, Mutrikura.

Proiektu honek hizkuntza desbardinak eta "gure kasuan euskera eta gure herria, Euskal Herria" ezetuteko aukerea be emoten dauala adierazo dau Nuria Korta Zeberioko eskolako zuzendariak, eta zelan ez, kultura desbardinak ezetutekoa. Osotara sano esperientzia aberasgarria dala azpimarratu dau zuzendariak, eta aitatu gura dau eskertutekoa dala Zeberioko eskola komunitadeak egiten dauan beharra; hain zuzen be, Udalak, jubilauek, langileak eta bereziki familiak proiektu honetan egiten dabean lana, umeak familietan egoten diralako.

Esan moduan urte biko proiektua danez, datorren urteari begira energia iturri desbardinak aztertuko dabiz ikasleak. Eta, ikasturte honetan ikasitakoagaz makina sinpleak egite-
tetik makina konplejuagoak egitera helduko dirala azaldu dau Kortak.

HILE KULTURALA

Hile osorako programazinoa prestau dabe Zeberion

Erredakzioa

Zemendiaren amaieran hasi eta Gabonetako programazinoagaz lotu arteko kirol eta kultura jarduerak prestatu dabez Zeberion.

Taekwondoak emon eutsan hasikerea egitarau potoloari, zemendiaren 30ean eta abenduaren 1ean egindako emtrentamentu ireki eta erakustaldi eta tailerragaz. Hurrengoak, Euskerearen Eguneko jarduerak izango dira: *Peru Tximalu-ze* liburuaren irakurketa jarraitua eta euskaldun barrien esperientzien kontaketak.

Lehenengo hamabostaldia

Lehenengo hamabostaldi honetan, musika entzun eta txangoak egiteko aukerea egongo da. Holan, hilaren 10ean, 19:15ean, Musika Esko-

lako ikasleak entzunaldia eskainiko dabe udaletxean, eta hilaren 13an, barikuan, Bilboko Areatzako izotz pistara joateko hitzordua daukie gazteak, 18:15ean, Gaztelekuan. Bariku horretan bertan, 19:30ean, Laudioko Santa Luzia Abesbatzak kontzertua eskainiko dau Ermitabarriko San Antonio Ermitan, herrian geratu diranentzat.

Domekan, hilak 15, Austarri Mendi Taldeak Jaizkibelatik Donostiarainoko mendi martxea antolatu dau. Goizeko 07:30ean, plazan batuko dira partaideak. Egurdiko 12:00etan, umeen pelota partiduak egongo dira plazako frontoian eta 19:00etan, *Arratiako Tranbiaren* erakusketearen inaurgurazinoa udaletxean. Jon Uru-
txurtu historialariak kontauko dau tranbiaren historia.

IKUSKIZUNA

Korrontzi, Areatzako Banda eta Arantzarte Igorren

Erredakzioa

Abenduaren 14an, 20:00etan, izango da ikuskizuna Lasarte Areatoan. Korrontzi folk musika taldea Agus Barandiaran trikitilariak sortu eban 2004an. Bere helburua, euskal musika herrikoari eta bere lurraldeko antzinako hots tradizionalai beste ikuspuntu moderno eta garaikideago bat emotea zan, trikitixan oinarrituta eta txalapartea edo albokea lango beste instrumentu tradizional batzuk ardatz hartuta. Sonoridade barri hau lortzeako, musika estilo modernoagoez inguratu eta beste batzuen artean, mandolinea, baju elektrikoa, kontrabajua eta perkusioen laguntza

izaten dau; Lasarte Areatoan, Areatzako Bandarena be bai.

Areatzako Bandak bere ibilbideari 1983 urtean ekin eutsan, San Bartolome jaietako kontzertuan. Harrezkerotik, kontzertu ugari emon ditu, musika estilo gehienak landuz: sortzaile handien lan sinfonikoen adaptazioak, film doinuak, musika garaikidea... Baita pieza herrikoiak eta jantza doinuak be.

Korrontzik eta Areatzako Bandak jotako doinuak jantzatze-
ko, Arantzarte jantza taldea izango da eurenkaz. Arantzarte jantza taldeak 45 urte beteten ditu aurtengo, euskal jantzak Arratiako belaunaldi barriari irakasten eta mundu osoko plaza eta eszenalekuetan jantzan egiten.



KANPAINEA

Igorreko Lasarte Aretoko bazkide izateko kanpaina abiatu dau



Erredakzioa

"Gabonetan kultura oparitu!!" lelopean Lasarte Aretoko bazkide txartela 5 euro merkeago egin edo bariztu daiteke urtailaren 3ra arte. Horretarako, Kultur Etxeko harrerara jo behar da, 10:00etatik 20:30erako ordutegian. Gabonetako kanpaina berezi hau martxan ipinten dan berderatigarren urtea da.

Txartelagaz urteko ikuskizun guztietan %25eko deskontua izaten da, eta zuzeneko ikuskizun bat eta lau pelikula doban dira. Gainera, Euskal Antzoki Sareako antzoki guztietan, deskontuak egiten ditue Lasarte Aretoko bazkide txartelagaz. Txartela egiteko edo informazioa jasoteko Igorreko Kultur Etxera hurbildu behar da edo 94 673 62 51 telefonora deitu.

KONTZERTUAK

Uckaia, Bullets of Misery eta The Eleventh Plague Kiñu Gaztetxean

Erredakzioa

Abenduaren 14an, zapatua, hardcore eta metal soinuak astinduko dabe gaua Kiñu Gaztetxean 21:00etatik aurrera. Uckaia, hardcore melodikoa egiten dauan taldeak, Gernikako Bullets of Misery thrash metal, death metal eta hardcore estiloko taldeak eta Bilboko The Eleventh Plague deathcore taldeak joko dabe. Borrodatea izango da sarrerearen prezioa.

Uckaia

Aitor Ipiña (bajua) eta Ager Barragan (bateria) billaroztarrak, Lander Txabarri (ahotsa), Lander Elorriaga (gitarra) eta Edu Fernandez (gitarra) Arratia eta Galdakaoko kide gazteak osotzen dabe. Euren bigarren lana aurkeztuko dabe Arratian lehenengoz. Oin dala urte eta erdi lehen lan luzea atera eben *My Mind, My Universe* izenekoa. "Hainbat kontzertu jo doguz eta Euskal Herritik kanpora be heldu gara, Galiza, Madril, Valentzia, Asturias, Gaztela eta Leon..." dino Ipiñak. Oingoan autoekoiztutako hiru abestiko EP bategaz datoz, *Introspection* izenekoa. "Uste dogu gure musikea beste limite batera eroan dogula eta sano pozik gagoz emaitzeagaz!" azaldu dabe.

Bullets of Misery eta The Eleventh Plague

Gernikako bost musikarik 2008 urtean eratutako taldea da. Beti metal gogorraren bidetik *old school* eta aro barriko estiloa nahasten dabe "100% Original Rural Death" deritxaten estilo personala sortuz. Euskeraz abestutaren aldeko aldarria egiten dabe, (*We growl in Basque!*) dinoe. *Summum Post Mortem* atera eben 2015ean harrera sano onagaz eta 2018ko zemendian kaleratutako *Linguae Vasconum Primitiae* azken EPak, kritika ezin hobek jaso ditu. "Kristautasun aurreko euskal kultura jentil iluna lantzean da bertan, inoz baino era bortitz eta oinarritzagoan". Taldearen indarra euren zuzeneko emonaldietan adierazoten dabe ondoen.

The Eleventh Plague Bilboko slamming deathcore taldeak ostera *Cataclysm* lehen 4 abestidun EPa argitaratu eban udan. Bost musikari gaztek osotzen dabe banda. Bestalde, aurtengo Dimetal Fest jaialdian parte hartu eben. "Urte honetan hainbat oztopo topau doguz taldea aurrera eramateko bidean" dinoe, baina oin, gogo guztiagaz, euren musikea zabalduko dabe hainbat kontzertutan. Tartean abesti barriak sortzean dagoz.

ZINEA



Cold War Igorreko Zineklubean

Erredakzioa

Abenduaren 12an, iluntzeko 20:00etan, Igorreko Zineklubak Pawel Pawlikowski zuzendari poloniarren *Cold War* (2018) film dramatiko eskainiko dau Lasarte Aretuan.

1950eko hamarkadan, Poloniak gerraoste gogorra bizi dau komunismo estalinistaren menpe. Wiktor Warski piano-joleak Zuzanna Lichón "Zula" abeslaria ezetuko dau, eta jatorri desbardin eta izakera bateraezinekoak diran arren, maitasun istorio gartsu eta

korapilatsua biziko dabe, sasoi gogorretan.

Pawlikowski bere gurasoen benetako istorioan inspirau zan pelikulea egiteko.

Pawel Pawlikowski

Pawel Pawlikowski (Varsovia, 1957) zine zuzendari eta gidogileak hainbat film egin ditu. *Ida* (2013) filmagaz ingelesez besteko film onenaren Oscar Saria irabazi eban lehen lan poloniarra da. Igorren emongo dan *Cold War* pelikuleagaz ostera 2018ko abenduan, film onenaren eta gidoi onenaren Europako Zinemaren Saria jaso eban; Canneseko Zinemaldian Zuzendari onenaren Saria irabaztea lortu eban eta 2019ko urtailan, Zuzendari Onenaren Akademiako sarietarako izentau eben, besteak beste.

DUNBA

Dimidio 51 Pegasi b

Zeberriko eskolako ikasleak

Zeberriko 5. eta 6. mailako ikasleok lehenengo exoplanetaren aurkikuntzearen gainean berba egingo deutesuegu.

Exoplaneta eguzki sistematik kanpo dagoan planeta da. Gu eguzkiarenean bizi gara. Unibersoan antzeko beste sistema gehiago dagoz. Holango sistemai exosistema deitzean jakie.

51 Pegasi b (Dimidio) exoplaneta Helvetios izar nano gorriaren inguruan dago, Lurretik 50 argi urtera.

Lurra baino hogeta bi aldiz handiagoa dau erradioa. 2017an ur aztarnak topau ziran bere atmosferan. Temperatura gitxi go-


rabehera 5.500 K gradukoa da.

Exoplaneten proiektua oin dala 50 urte hasi zan. 1992an lehenengo exoplanetea detektatu eben. 1995eko urri bigarrenean Michel Mayor eta Didier Queloz-ek baieztatu eben, izar baten inguruan orbitatzen ebala. Haute-Provenceko behatokitik Elodie espektrografoagaz ikusi eben. Harrezkero 4.000 exoplaneta topau dabez.

Aurretik James Peebles-ek egindako lanak bidea emon eutsen euren ikerkuntza egin ahal izateko. Horrexegaitik hirurak emongo deutsee aurten Fisikako Nobel Saria.

Nobel fundazioak esan dauanez, 1960ko hamarkadatik aurrera Pebelek egin ebazan aurkikuntza teorikoak gaur egun unibersoaren inguruan dagozan idea nagusien oinarria dira.

Sariok Suedian bananduko dira



datorren abenduaren 10ean.

Erdia James Peeblesentzat izango da. 9.000.000 suediar koroa irabaziko ditu (830.000 euro). Unibersoaren eboluzioa ulertzeko egindako aurkikuntzeagaitik. Eta beste erdia, Michel Mayor eta Didier Quelozentzat. Eguzkiaren antzeko izar baten inguruan orbitatzen dauan planeta aurkitzeagaitik.

Honeexek dira sarituak:

James Peebles: 1935eko apirilaren 25ean jaio zan Winnipeg (Kanadan).

Manitobako unibersidadean lizentziatu zan. 1958ko udagoien bere doktoletzako ikasketak bete ebazan Princeton unibersidadean Robert Dicke bere ikusatzaille zala.

Irrada kosmikoaren ezaugarriai



eta galaxien sorrera eta bilakareari buruz egindako lanengaitik da, hain zuzen be, ospetsua.

Michel Mayor: 1942ko urtailaren 12an jaio zan Lausanne (Suitza).

Lausanako unibersidadean fisika ikasi eta bertan lortu eban astronomia doktoletzea 1971n. Ginebrako behatokian zuzendaria izan zan 1998tik 2004ra eta irakasle emeritu izan da 2007ra arte.

Didier Queloz: 1966ko zezeilaren 23an jaio zan Suitzan.

Ginebrako unibersidadeko Ph. Departamentuan ikaslea izan zan Mayor arduraduna zanean.

AGENDEA

ABENDUAK 2 ARRATIA

Ilgoran Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, Torontileren eskutik Lemoako Kulturgunean egingo dan *Kartel feministak diseinatzen* ikastaroan izena emoteko epea zabalik.

Ilgoran Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, Amelia Barquinen eskutik Arteko Kultur Etxean egingo dan *Kultur aniztasuna eta generoa gurutzatzen direnean* titulupeko interkulturalidadeari buruzko berbalditailerrean izena emoteko epea zabalik.

Hilaren 5era arte, Gorbealde Landa Garapen Alkartean Produktu Teknikaria lanposturako izena emoteko epea Areatzako Gorbealderen egoitzan.

AREATZA

Urtailearen 3ra arte Bonodenda. 30 euroko balio daukien 400 bono 25 eurotan salgai udaletxean, herriko Orburu Merkatarien Elkarteak komertzioetan erabilteko.

18:00etatik 20:00etara, Uparan Jubiladuen alkatereko kideak kuotea ordaindu, loteria erosi eta Gabonetako bazkarian izen emotea Jubiladuen lokalean.

ARTEA

Hilaren 13ra arte, Euskaraldiaren lantaldia apuntetako epea. Udaletxean.

DIMA

19:00etan, berbaldia *Euskaraldia gehiago, gehiagorekin, gehiagotan*. Abaroa Aretoa.

IGORRE

10:00etatik 20:30era, "Gabonetan kulturea oparitu!!" Lasarte Aretoko bazkide txartela 5 euro merkeago egin edo barritz. Urtailearen 3ra arte Kultur Etxean.

Alkartasun mezuak kartzeletara bialtzeko aukerea hilaren 15era arte Herriko Tabernan. Axular Kultur Elkartek antolatuta.

LEMOA

Hilaren 5era arte, neguko oporretan ludotekarako izen emotea. Liburutegian edo webgunean.

ABENDUAK 3 ARANTZAZU

18:30ean, Arantzazuko Kultur Batzordeak antolatuta, Euskaraldiari bultzadea emoteko, sare bat egingo da Euskaraldiagaz lotutako desioak eta bizipenak itsatsiz. Argazkia atera eta manifestua irakurri. Amaituteko, txokolata eta bizkotxoak. Kultur Gunean.

AREATZA

16:30etik aurrera, bigarren eskuko jolasen merkadu txikia, txapa tailerra eta txokolata eskolako aterpean. Guraso Elkartek antolatuta; 19:00etan, Euskera Batzordeak antolatuta *Andre eta jabe*, poesia, bertsoa eta musikea uztartzen dituan ikuskizuna. Udaleko Areto Nagusian.

18:00etatik 20:00etara, Uparan Jubiladuen alkatereko kideak kuotea ordaindu, loteria erosi eta Gabonetako bazkarian izen emotea Jubiladuen lokalean.

ARTEA

15:30ean, eskolako umeak euskereagazko idatzitako desioak eskegi; 17:00etatik 19:00etara, desioak idatzi eta eskegi; 17:30ean, Altxoraren bila ludotekaren hasita; 18:00etan, taloak; 18:45ean, jantza modernokoen *Gure nahia* kantuaren erakustaldia.

BEDIA

18:00etan, Gabon Txartelen Lehiaketako sari banaketea. Liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 13ra bitartean Gabon Txartelen Lehiaketan parte hartu

daben marrazkien erakusketea. Liburutegian.

DIMA

17:30ean, Euskerearen Eguna. Ekitaldia frontoi txikian. Adierazpena, bideoak, jantzariak, bertsolariak... Bitartean sinadura bilketea "Nizez harremanak euskeraz".

IGORRE

18:00etatik 19:00etara, Euskerearen Eguna. Euskaraldiagaz lotutako bizipen eta desioak idatzi eta eskegi horretarako Kultur Etxeko plazan prestatuko dan sare baten; 19:00etan, ekitaldia Kultur Etxean, *Inbiu 2019 iruditzen*, esaera zaharren bideo emondia, sari banaketea eta Euskaraldia 2020ren aurkezpena.

ZEANURI

Euskerearen Eguna. Ekitaldia eskolan: alkaterean testu bateratua irakurri, abestu eta txokolata jana. 17:30etik 19:30era, abenduaren 15eko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Bizi dantza* ikuskizunerako sarrerak salgai udaletxean.

ZEBERIO

15:00etan, eskola-umeak *Peru Tximaluzeren* irakurketa jarraitua; 18:30ean, euskaldun barriak euren bizipenak kontauko dabez. Udaletxean.

ABENDUAK 4 ARTEA

11:00etan, Jubiladuen alkatereko antolatuta, *Mugikorra* tailerra. Kultur Etxean.

LEMOA

Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren inguruan. 19:30ean, *Entre el día i la nit no n'hi ha paret* dokumentala. Alba Herrero Garces eta Teresa de la Fuente Espinosagaz berbaldia. Mundubat-ek eta Udalak antolatuta. Gaztetxean.

ABENDUAK 6 DIMA

18:00etan, *Bakean dagoena, bakean utzi* antzezlan. Abaroa Aretoa.

LEMOA

Hilaren 8ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urtekerea. Muela de Urbion (2.228 m.)-Mesa de Cebollera (2.163 m.)-Muelago (1.469 m.).

ABENDUAK 7 ARANTZAZU

07:30ean, Arginatx Mendi Taldearen urte amaierako urtekerea Erniora. Alkiza-Ernio-Alkiza. Ostein bazkaria Tolosan. Izena abenduaren 3ra arte emon ahal da Monteron.



Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna Zeanurin

Zeanuriko Kultur Batzordeak Gabonetarako antolatu dauan egitarauan, *Bizi dantza* pailazo ikuskizuna eskainiko dau abenduaren 15ean, domekan 17:30ean, Zeanuriko frontoian. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek zemendian aurkeztu eben lan barria, Jon Maia eta Vanesa Castaño jantzariakaz alkarlanean. Sarrerak egun biz egongo dira salgai, udaletxe azpian. Abenduaren 2an herrikoentzat, 17:30etik 19:30era, eta abenduaren 3an, ordutegi bardinagaz, beste guztientzat. Abenduaren 4tik aurrera udaletxean bertan erosi ahal izango dira.

Jantzea bizitzako esparru danetara eroatea dau helburu ikuskizunak, barruko animalia plazara atera eta euraraz jantzan egiteko konbitea luzatuten dabe Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 70 minutuko familia-antzerkian.

IGORRE

22:00etan, zinea *Joker* Lasarte Aretoa.

ABENDUAK 8 IGORRE

10:00etan hasita, Igorreko Ziklo-krosa. 17:00etan, zinea *Asto erregea*; 19:30ean, *Joker* Lasarte Aretoa.

ABENDUAK 9 BEDIA

18:00etan, Euskaraldiaren antolatzaileak 2020ko Euskaraldirako zeintzuk diran emon beharreko pausuak eta egin beharreko ekintzak azalduko dabez, baita batzorde bakotzak zer egin ahal dauan. Liburutegian.

ABENDUAK 10 LEMOA

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna. 19:30ean, *Emakumeak luraren defentsan* dokumentala eta Mundubat Fundazinoko Gotzone Artiñanogaz berbaldia Gaztetxean.



ZEBERIO

19:15ean, musika entzunaldia, Musika Eskolako ikasleen eskutik. Udaletxean.

ABENDUAK 11 ARTEA

11:00etan, Jubiladuen alkatereko antolatuta, *Mugikorra* tailerra. Kultur Etxean.

IGORRE

19:00etan, Makatzak Arratiako Talde Ekologistak antolatuta *Aralar, mundua leku den lurra* filma. Lasarte Aretoa.

LEMOA

19:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, *Kartel feministak diseinatzen* ikastaroa Torontileren eskutik Kulturgunean.

ABENDUAK 12 BEDIA

19:00etan, Erregenen kabalgatan parte hartzeako batzarra. Eskoletan. Udalak eratuta.

IGORRE

10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Igorreko misinolarien proiektuak lagunduteko Tonbola solidarioa hilaren 15era arte. Sabino Arana 1 kalean.

18:30ean, Nokaren (hitanoa) gaineko tailerra Herriko Tabernan. Axular Kultur Elkartek antolatuta.

20:00etan, zinekluba, Pawel Pawlikowski poloniarren *Cold War* filma Lasarte Aretoa.

ABENDUAK 13 AREATZA

19:30ean, Euskaraldia 2020 aurkezpena. Ilaski Serrano, ETB1eko aurkezlearen eskutik. Udaletxeko Areto Nagusian.



ARTEA

11:00etan, Jubiladuen alkatereko antolatuta, *Mugikorra* tailerra. Kultur Etxean.

18:00etatik 21:00etara, Arratiako Jabekuntza Eskolaren *Kultur aniztasuna eta generoa gurutzatzen direnean* titulupeko interkulturalidadeari buruzko berbalditailerra, Kultur Etxean, Amelia Barquin, Mondragon Unibertsitateko irakaslearen zuzendaritzapean.

LEMOA

18:00etan, JM Mendes idazle lemoztarraren *Raices profundas* liburuaren aurkezpena. Liburutegian.

ZEBERIO

18:15ean, Bilboko Areatzako izotz pista ekologikora urtekerea, Gazteleguan; 19:30ean, Audioko Santa Luzia Abesbatzaren kontzertua San Antonio ermitan.

ABENDUAK 14

ARTEA

10:00etatik 13:00etara, Arratiako Jabekuntza Eskolaren *Kultur aniztasuna eta generoa gurutzatzen direnean* titulupeko interkulturalidadeari buruzko berbalditailerra, Kultur Etxean, Amelia Barquin, Mondragon Unibertsitateko irakaslearen zuzendaritzapean.

14:30ean, Ander Deuna jubiladuen alkaterearen bazkaria Ustrukue jatetxean.

IGORRE

20:00etan, Korrontzi folk taldea, Areatzako Banda eta Arantzarte jantza taldearen ikuskizuna. Kultur Etxean.

21:00etan, kontzertuak Kiñu Gaztetxean. Uckaia, Bullets of Misery eta The Eleventh Plague. Sarrerea borondatea.



LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak eta JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, Turroi Eguna. Siskiño-Ubide.

UBIDE

Olentzerori gutuna eroateko urtekerea. 16:00ean, plazatik mendira; 17:30ean, txokolata Arraikoko apartalkarian; 18:00etan, Maridominginen sekretuak antzezlan.

ZEANURI

09:30ean, Turroi Eguna. Plazea-Olaburu-Arrikibar-Altzagotxi-Arbina-Palomares-Urtegia-Plazea Sagamaren portaletik urtenda. Ondoren kopaua. Jubiladuen Alkaterean.

ABENDUAK 15

BEDIA

Turroi Eguna. Urtekerea Gangurenen antolatuta Udalaren laguntzeagaz.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekerea Arratiatik.

ZEANURI

14:30ean, Kultur Batzordeak antolatuta, babajana Altzuan; 17:30ean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Bizi dantza* ikuskizuna frontoian.

ZEBERIO

07:30ean, plazan. Urtekerea Austari Mendi Taldeak antolatuta. GR 121 Jaizkibel-Pasai Donibane-Donostia; 12:00etan, umeen eskupeleta partidua plazako frontoian; 19:00etan, *Arratiako Tranbia* erakusketaren aurkezpena eta Jon Urubururen berbaldia udaletxeko aretoa.

ABENDUAK 16

AREATZA

18:30ean, aurrekontua aurkezteko batzarra. Udaleko Areto Nagusian.

LEMOA

19:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, *Kartel feministak diseinatzen* ikastaroa Torontileren eskutik Kulturgunean.

ZEBERIO

Eusebio Aldekoa egoitzaren 30. urteurrena. 11:30ean, mezea; 12:45ean, barsakaria trikitilariakaz; 16:30ean, Aritz Arotza gitarrajolearen kontzertua; 17:30ean, *Egoitzak 30 urte* proiektzioa. Eusebio Aldekoa egoitzan.

AKIMIKO

BEGITU

GELDIALDITXOA

Eskerrik asko Ibai!

IRAGARKI LABURRAK

SALDU SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalgia, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak dira. Deitu 657 777 542 zenbakira.

DANERIK ETXEEN GARBIKUZIA

Etxeak garbitzeko nonor behar badozu, ez eizu dudarik egin. Deitu 632 426 687 telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

Zeanurin pisua alokagai. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta balkoia. Interesdunak deitu zenbaki honetara: 628 041 526.

LONJEA ALOKAIRUAN HARTZEAN DOT

Lemoan 80 eta 150 metro bitarteko lonjea behar da alokairuan hartzeako. Deitu 617 046 429 telefonora.

KOMERTZIALA BEHAR DA

Komertzial lanetarako persona bat behar da. Ez da esperientziarik behar. Interesdunak

bialdu curriculum info@behingo.es helbidera.

BASERRI BILA

Lagun bi, alokairuan hartzeako baseri bila gabiz. Deitu 690 984 588 edo 678 902 509 telefonora.

IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, DBH 4. mailako Fisika eta Kimikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Interesdunak deitu 620 607 952 telefonora.

ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezkerro, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Joker** filma ikusteko.



Itziar Gurtubai (Igorre)
Rosana Pedrosa (Areatza)

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Korrontzi, Areatzako Banda eta Arantzarteren** ikuskizunerako.



Jose Ramon Arbe (Gasteiz)
Ruper Lekue (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

sew
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

begitu
argitaletxeak

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, 3 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 487 830 • 609 200 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEXEA
Tel.: 94 631 52 83
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutejatexea@hotmail.com

Pinturas Arantia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkara egin eta buzkunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



Areatza Bainuetxea



Heldu da Olentzero Areatza Bainuetxera

Honeek dira gure opari bonoak:

- Zirkuitu termalak
- Fisioterapia bonoak
- Masajeak
- Zirkuitu bonoak + bazkaria
- Estetika
- Hotelean egoteko bonoak + bainuetxea
- Bikoteentzako gutiziak
- Hidroterapia
- Gorputza zaintzekoak

Imajinetan dozun guztia oparitarako bilduten deutsugu.
Bila etorri zaitezke edo emailez bialduko deutsugu.

www.hotelbalnearioareatza.com
info@hotelbalnearioareatza.com - 94 657 27 05
Askatasuna 50 Bis - 48143 - Areatza - Bizkaia